

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

LH 4. maila

2025-2026 IKASTURTEA

ZUZENTZEKO KOADERNOA

MATEMATIKARAKO

GAITASUNA

INDIZEA

I. LABURPENA	5
II. ZUZENDU BEHARREKO GALDERAK.....	7
III. KOADERNOA SOLUZIOEKIN	13

Honako hau da atal bakoitzaren edukia:

- I. LABURPENA

Probaren item bakoitza **zein motatakoa** den, zein duen **erantzun zuzena**, lor daitekeen **gehieneko puntuazioa**, dagozkion **oinarrizko jakintza, konpetentzia espezifikoa** eta **ebaluatutako prozesua** taula batean bildu dira.

- II. ZUZENDU BEHARREKO GALDERAK

Zuzendu beharreko item bakoitzaren **ebazpena** eta **zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak**.

- III. KOADERNOA SOLUZIOEKIN

Ikasleari emandako liburuxka bera, item bakoitzaren erantzuna nabarmendu delarik.

I. LABURPENA

Matematikarako gaitasuna frogak 24 item ditu. Horietako zazpi zuzendu eta kalifikatu behar dira:

1, 5, 10, 14, 17, 18 eta 21

Item bakoitza zein motatakoa den, zein duen erantzun zuzena, lor daitekeen gehieneko puntuaketa, dagozkion oinarrizko jakintza, kompetentzia espezifiko eta ebaluatutako prozesua ageri dira taula honetan:

Itema	Erantzunaren mota	Erantzun zuzena	Gehieneko puntuazioa	Oinarrizko jakintza	Kompetentzia espezifiko	Ebaluatutako prozesua
1	Irekia	Ikus II. atala	3	Zenbakizko zentzua	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea
2	Itxia	B	1	Zentzu espaziala	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea
3	Itxia	D	1	Zenbakizko zentzua	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea
4	Itxia	C	1	Neurriaren zentzua	Arrazoitzea eta probatzea	Ezagutzea eta erreproduzitzea
5	Irekia	Ikus II. atala	1	Zenbakizko zentzua	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea
6	Itxia	C	2	Zentzu estokastikoa	Komunikazioa eta irudikapena	Aztertzea eta aplikatzea
7	Itxia	D	1	Neurriaren zentzua	Problemak ebaztea	Arrazoitzea eta hausnartzea
8	Itxia	C	1	Neurriaren zentzua	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea
9	Itxia	C	1	Zentzu espaziala	Komunikazioa eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea
10	Erdieraikia	Ikus II. atala	1	Zenbakizko zentzua	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea
11	Itxia	D	1	Zentzu espaziala	Komunikazioa eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea
12	Itxia	B	1	Zentzu espaziala	Komunikazioa eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea
13	Itxia	C	1	Neurriaren zentzua	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea
14	Itxia	Ikus II. atala	2	Neurriaren zentzua	Loturak	Ezagutzea eta erreproduzitzea
15	Itxia	B	1	Zentzu estokastikoa	Komunikazioa eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea
16	Itxia	C	1	Zentzu aljebraikoa	Loturak	Ezagutzea eta erreproduzitzea
17	Itxia	Ikus II. atala	2	Zentzu estokastikoa	Komunikazioa eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea
18	Irekia	Ikus II. atala	2	Zenbakizko zentzua	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea
19	Itxia	B	1	Neurriaren zentzua	Loturak	Ezagutzea eta erreproduzitzea
20	Itxia	A	1	Zentzu espaziala	Komunikazioa eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea
21	Irekia	Ikus II. atala	2	Neurriaren zentzua	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea
22	Itxia	C	1	Zenbakizko zentzua	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea
23	Itxia	B	1	Zentzu aljebraikoa	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea
24	Itxia	B	1	Zenbakizko zentzua	Komunikazioa eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea
25	Itxia	D	1	Neurriaren zentzua	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea
Puntuazioa guztira: 32						

II. ZUZENDU BEHARREKO GALDERAK

Zuzendu beharreko zazpi itemen ebazpen posible bat(zuk) (hala dagokionean) zein zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak agertzen dira.

Zuzendu eta kalifikatu beharreko galderak hauek dira:

1, 5, 10, 14, 17, 18 eta 21

1. BURUZKO KALKULUA

A kalkulua. Astelehenean nekazari batek 130 kg zainzuri hartu zituen, asteartean 70 kg eta asteazkenean 120 kg. Guztira, zenbat kilogramo bildu zituen egun horietan?

320 kilogramo

B kalkulua. Lur eremu batean 55 olibondo daude eta beste batean 33 olibondo. Zenbat olibondo gehiago daude lehen eremuan bigarreanean baino?

22 olibondo

C kalkulua. Asierrek litro bat olio banatu du lau botila berdinetan. Zenbat mililitro ditu botila bakoitzak?

250 mililitro

D kalkulua. $30 \times 6 + 20 =$ **200**

E kalkulua. $(120 - 40) : 2 =$ **40**

F kalkulua. $100 : 4 \times 3 =$ **75**

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Erantzun zuzen bakoitzeko 0.5 puntu

Gehieneko puntuazioa: 3

5. Errezu herrian, iaz 800 kilogramo intxaur jaso zituzten bi egunetan. 40 kilogramo kendu zituzten, egoera txarrean zeudelako. Gainerako intxaurrek 8 kilogramoko zakuetan sartu zituzten.



Zenbat zaku bete zituzten?

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta emaitza.

Bi ebazpen posible	
<i>Ebazteko bi modu jaso ditugu:</i>	
1. modua	2. modua
$800 - 40 = 760 \rightarrow 760 : 8 = 95$	$800 : 8 = 100 ; 40 : 8 = 5 \rightarrow 100 - 5 = 95$
Erantzuna: 95 zaku	

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK			
	Kilo erabilgarrien kopurua lortzea	Zaku-kopurua lortzea	Puntuazioa
1. MODUA	Zuzen (760 kg)	Zuzen (95 zaku)	1
	Zuzen (760 kg)	Oker	0.5
	Oker	Ondo , lortutako kilogramo-kopurutik abiatuta, nahiz eta okerra izan.	0.5
	Oker	Oker	0

	Zaku-kopuruak lortzea (kopuru osoa eta egoera txarrekoa)	Egoera oneko zaku-kopurua lortzea	Puntuazioa
2. MODUA	Zuzen (100 zaku eta 5 zaku)	Zuzen (95 zaku)	1
	Zuzen (100 zaku eta 5 zaku)	Oker	0.75
	Oker	Ondo , lortutako zaku-kopuruetatik abiatuta, nahiz eta okerrak izan.	0.25
	Oker	Oker	0

10. Asmatu zein den Montejurra mendiaren altuera, pista hauei jarraituz:


- Hamarrekoen zifra ahalik eta handiena da.
- Ehunekoen zifra unitateen zifraren bikoitza da.
- Zifra guztien batura 21 da.

Idatzi lauki bakoitzean dagokion zifra.

Montejurraren altuera 8 9 4 metro da.

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK	
Erantzunak	Puntuazioa
Erantzuna zuzena denean: 894	1
Bestela.	0

14. Begiratu arretaz Lezaungo baserri-eskolan dauden eremuak:



Adierazi X batez baieztapen hauek egia (E) ala gezurra (G) diren:

	E	G
Harreraren azalera bada abeletxearen azaleraren bikoitza.		X
Abeletxearen eta baratzearen azalerak berdinak dira.		X
Harreraren azalera basoaren azaleraren erdia da.	X	
Basoaren azalera zona basatiaren azaleraren hirukoitza da.		X

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK	
Erantzun zuzen bakoitzeko 0.5 puntu	Gehieneko puntuazioa: 2

17. Begiratu Deikaztelun hartutako hainbat olibaren irudiari:



Begiak estali eta oliba bat hartzen baduzu ...

Irakurri baieztapen hauek, eta adierazi X batez egia (E) ala gezurra (G) diren:

	E	G
Ziurra da oliba beltz bat hartzea.		X
Litekeena da oliba berde bat hartzea.	X	
Probableagoa da oliba beltz bat hartzea oliba berde bat hartzea baino.		X
Oliba berde bat hartzeko probabilitatea oliba beltz bat hartzeko probabilitatearen bikoitza da.	X	

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK	
Erantzun zuzen bakoitzeko 0.5 puntu	Gehieneko puntuazioa: 2

18. Kaxa batean oliba-olio birjina estra duten 6 botila handi daude. Kaxa horrek 108 euro balio du. Botila handi guztiak 3 litrokoak dira.



Zenbat balio du litro bat oliok?

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta emaitza.

Hiru ebazpen posible		
<i>Ebazteko hiru modu jaso ditugu:</i>		
1. modua	2. modua	3. modua
$108 : 6 = 18 \rightarrow 18 : 3 = 6$	$6 \cdot 3 = 18 \rightarrow 108 : 18 = 6$	$108 : 3 = 36 \rightarrow 36 : 6 = 6$
Erantzuna: 6 euro		

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK			
1. MODUA	Botil handi bakoitzaren prezioa lortzen du	Litro bakoitzaren prezioa lortzen du	Puntuazioa
	Zuzen (18 €)	Zuzen (6 €)	2
	Zuzen (18 €)	Oker	1
	Oker	Zuzen, lortutako bidoi bakoitzaren prezioetik abiatuta, nahiz eta okerra izan.	1
	Oker	Oker	0
2. MODUA	Botil handietan dagoen olio-litro kopurua lortzen du	Litro bakoitzaren prezioa lortzen du	Puntuazioa
	Zuzen (18 litros)	Zuzen (6 €)	2
	Zuzen (18 litros)	Oker	1
	Oker	Zuzen, botil handietan dagoen olio litro kopurutik abiatuta, nahiz eta okerrak izan.	1
	Oker	Oker	0
3. MODUA	Sei botil handien heren guztien prezioa lortzen dute	Litro bakoitzaren prezioa lortzen du	Puntuazioa
	Zuzen (36 €)	Zuzen (6 €)	2
	Zuzen (36 €)	Oker	1
	Oker	Zuzen, sei botil handien heren guztien prezio bateratutik abiatuta, nahiz eta okerrak izan.	1
	Oker	Oker	0

21. Naroak eta aitak hiru ogi txigortu prestatu dituzte gosaltzeko.

Begiratu egin dituzten hiru pisaldiei:

Kalkulatu zenbat gramo pisatzen duen olioa daukan ogi txigortuak.



Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta emaitza.

Hiru ebazpen posible		
<i>Ebazteko hiru modu jaso ditugu:</i>		
1. modua	2. modua	3. modua
$370 - 210 = 160 \rightarrow$	$370 - 250 = 120 \rightarrow$	$210 + 250 = 460 \rightarrow$
$250 - 160 = 90$	$210 - 120 = 90$	$460 - 370 = 90$
Erantzuna: 90 gramo		

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK			
1. MODUA	Marmelada ogi txigortuaren pisua lortzea	Olio ogi txigortuaren pisua lortzea	Puntuazioa
	Zuzen (160 gr)	Zuzen (90 gr)	2
	Zuzen (160 gr)	Oker	1
	Oker	Zuzen, lortutako marmelada ogi txigortuaren pisutik abiatuta, nahiz eta okerra izan.	1
	Oker	Oker	0
2. MODUA	Urdaiazpiko ogi txigortuaren pisua lortzea	Olio ogi txigortuaren pisua lortzea	Puntuazioa
	Zuzen (120 gr)	Zuzen (90 gr)	2
	Zuzen (120 gr)	Oker	1
	Oker	Zuzen, lortutako urdaiazpiko ogi txigortuaren pisutik abiatuta, nahiz eta okerra izan.	1
	Oker	Oker	0
3. MODUA	Bi ogi txigorturen prezioa lortzea, urdaiazpikoarena eta marmeladarena	Lortu olio txigortuaren pisua	Puntuazioa
	Zuzen (460 gr)	Zuzen (90 gr)	2
	Zuzen (460 gr)	Oker	1
	Oker	Zuzen, aurreko urratsean deskribatutako pisutik abiatuta, nahiz eta okerra izan.	1
	Oker	Oker	0

III. KOADERNOA SOLUZIOEKIN

Azkenik, ikasleei emandako liburuxka bera ageri da atal honetan item bakoitzaren erantzuna adierazi dugularik.

1. BURUZKO KALKULUA

A kalkulua	Astelehenean nekazari batek 130 kg zainzuri hartu zituen, asteartean 70 kg eta asteazkenean 120 kg. Guztira, zenbat kilogramo bildu zituen egun horietan? 320 kilogramo
B kalkulua	Lur eremu batean 55 olibondo daude eta beste batean 33 olibondo. Zenbat olibondo gehiago daude lehen eremuan bigarreanean baino? 22 olibondo
C kalkulua	Asierrek litro bat olio banatu du lau botila berdinetan. Zenbat mililitro ditu botila bakoitzak? 250 mililitro
D kalkulua	$30 \times 6 + 20 =$ (30 bider 6... <u>2 segunduko etena</u> ... gehi 20 berdin...). 200
E kalkulua	$(120 - 40) : 2 =$ (120 ken 40 ... <u>2 segunduko etena</u> ... zati 2 berdin...). 40
F kalkulua	$100 : 4 \times 3 =$ (100 zati 4... <u>2 segunduko etena</u> ... bider 3 berdin...). 75

Ikus II. atala

Estellerria

Estellerrian leku interesgarri asko bisitatu eta goza daitezke: Allozko urtegia, Lezaungo baserri-eskola, ehun urtetik gorako zuhaitzak, hainbat herri ...



2. Deierriko Udalaren webgunean eskubiko irudia agertzen da. Irudiaren ezker aldean 5 irudi geometriko ikusten dira, koloreztatuta:

Figura horietatik zenbat dira poligono?

- A. Figura bat.
- B. Bi figura.
- C. Hiru figura.
- D. Lau figura.



3. Bi lagun bizikletaz joango dira **Lerateko kanpinetik Irantzuko monasteriora, Allotzetik eta Aritzalatik** igarota. Ondoren, toki beretik itzuliko dira.

Hauek dira ibilbidearen distantziak:

- Leratek Allotzera, 5 km 700 m.
- Allotzetik Aritzalara, 5 km 300 m.
- Aritzalatik Irantzuko monasteriora, 5 km 500 m.

Zenbat kilometro egingo dituzte, guztira, joan-etorrian?

- A. 16 km eta 500 m.
- B. 15 km eta 500 m.
- C. 31 km.
- D. 33 km.

4. Eraulen, ehun urteko arte bat dago. Zuhaitz haren altuera zein den jakin nahi dugu.

Horretarako, eragiketa bat egin behar dugu, eta badakigu lehenengo batugaia zortziaren erdia dela, eta bigarrena hiruren bikoitza.

Zein da artearen altuera?

- A. 7 metro.
- B. 14 metro.
- C. 10 metro.
- D. 11 metro.



5. Errezu herrian, iaz 800 kilogramo intxaur jaso zituzten bi egunetan. 40 kilogramo kendu zituzten, egoera txarrean zeudelako. Gainerako intxaurreak 8 kilogramoko zakuetan sartu zituzten.

Zenbat zaku bete zituzten?


Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta emaitza.







Ikus II. atala

6. Familia bat Bakedaotik irten da, eta Urederraren iturbururaino joan da. Ibilbidean 61 animalia kontatu dituzte: arrainak, saiak, igelak, txoriak eta ardiak.

Etxera iristean grafiko bat marraztu dute ikusi duten mota bakoitzeko animalia kopurua irudikatuz, baina igelekin zalantza egin dute eta zutabea zuri utzi dute:



Ondoko zutabeetatik, zein dagokio zuriune horri?



A.

B.

C.

D.

7. Ondoren, familia Eulatera joan da aitona bisitatzera, herri horretan bizi baita. Aitona k bilobei kontatu die 1958ko ekainaren 12an jaio zela.

Zenbat urte ditu aitonak une honetan?

- A. 68 urte.
B. 78 urte.
C. 77 urte.
D. 67 urte.

8. Familiak gazta bat erosi du Aranaratxan. Begiratu irudiari:



Jakinik irudiko gazta zati txikiak 300 gramo pisatzen dituela, estimatu gazta osoaren pisua moztu aurretik.

- A. 1000 gramo baino gutxiago.
 - B. 1000 gramotik 1400 gramora bitarte.
 - C. 1400 gramo baino gehiago eta 2300 baino gutxiago.
 - D. 2300 gramo baino gehiago.
9. Begiratu San Pedro Ruakoa elizaren leihoari (Lizarra):



Zenbat zirkunferentzia ikusten dira irudian?

- A. Bat.
- B. Hiru.
- C. Bost.
- D. Zazpi.

10. Asmatu zein den Montejurra mendiaren altuera, pista hauei jarraituz:

- Hamarrekoen zifra ahalik eta handiena da
- Ehunekoen zifra unitateen zifraren bikoitza da.
- Zifra guztien batura 21 da.

Idatzi lauki bakoitzean dagokion zifra.

Montejurraren altuera


8

9

4


 metro da.

11. Rubenek Monjardingo gaztelua bisitatu du familiarekin. Gero, imaginatu duen gaztelu bat marraztu du:




Zein iruditan ikusten dira gaztelu gorria eta bere simetrikoa marra beltzarekiko?


A.




B.



C.



D.



12. Begiratu Alkozko ontzi baten belan marraztu duten triangelu horiari: Zer triangelu mota da?


- A. Aldekidea (= aldeberdina) eta zorrotza.
- B. Eskalenoa eta zorrotza.
- C. Eskalenoa eta angeluzuzena.
- D. Isoszelea eta kamutsa.




13. Galbarrako bi lagun mendira irten dira, goizeko hamarrak laurden gutxitan, perretxikoak biltzera. Herrira iristean irudiko erlojuari begiratu diote:

Zenbat minutu egon dira mendian?

- A. 130 minutu.
- B. 145 minutu.
- C. 160 minutu.
- D. 175 minutu.



14. Begiratu arretaz Lezaungo baserri-eskolan dauden eremuei:



Adierazi X batez baieztapen hauek egia (E) ala gezurra (G) diren:


	E	G
Harreraren azalera bada abeletxearen azaleraren bikoitza.		X
Abeletxearen eta baratzearen azalerak berdinak dira.		X
Harreraren azalera basoaren azaleraren erdia da.	X	
Basoaren azalera zona basatiaren azaleraren hirukoitza da.		X

15. Hiru lehengusu Oteitzan elkartu dira, asteburua pasatzeko. Osabaren baratzeria joan dira. Ikusi dituzten landare batzuk zenbatu dituzte:


LANDAREAK	ALE-KOPURUA
Kalabazina	III I
Letxuga	III III III II
Piperra	III III III
Tomatea	III III I

Zenbaketa kontuan hartuta, aukeratu grafiko zuzena:


A.




B.



C.



D.



Olibondoak

Olibondoa klima mediterraneoko zuhaitz tipiko bat da. Olibondoaren fruitua oliba da. Antzinetik, olibekin olioia lortzen da errotetan.



16. Mikelek irudi hau egin zuen Gabonetako oporretan, Allon hartu zituen olibondo adar batzuekin:



Eragiketa hauetako zeinek adierazten du irudiko oliben kopurua?

- A. $(5 \times 2) + (3 \times 3)$
- B. $(5 + 2) \times (3 + 3)$
- C. $(5 \times 3) + (3 \times 2)$
- D. $(5 + 3) \times (3 + 2)$

17. Begiratu Deikaztelun hartutako hainbat olibaren irudiari:



Begiak estali eta oliba bat hartzen baduzu ...

Irakurri baieztapen hauek, eta adierazi X batez egia (E) ala gezurra (G) diren:

	E	G
Ziurra da oliba beltz bat hartzea.		X
Litekeena da oliba berde bat hartzea.	X	
Probableagoa da oliba beltz bat hartzea oliba berde bat hartzea baino.		X
Oliba berde bat hartzeko probabilitatea oliba beltz bat hartzeko probabilitatearen bikoitza da.	X	

18. Kaxa batean oliba-olio birjina estra duten 6 botila handi daude. Kaxa horrek 108 euro balio du. Botila handi guztiak 3 litrokoak dira.




Zenbat balio du litro bat oliok?

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta emaitza.



Ikus II. atala

19. Begiratu irudian hiru ontziak eta haien edukiera:

		
700 ml	1 litro	20 cl

Hautatu esaldi zuzena:

- A. $700 \text{ ml} > 1 \text{ litro} > 20 \text{ cl}$
- B. $1 \text{ litro} > 700 \text{ ml} > 20 \text{ cl}$
- C. $20 \text{ cl} < 1 \text{ litro} < 700 \text{ ml}$
- D. $1 \text{ litro} < 20 \text{ cl} < 700 \text{ ml}$

20. Begiratu olio-errota baten irudiari:

Zer gorputz geometriko ikusten dira?

- A. Konoak eta zilindroak.
- B. Konoak eta piramideak.
- C. Zilindroak eta piramideak.
- D. Zilindroak eta kuboak.



21. Naroak eta aitak hiru ogi txigortu prestatu dituzte gosaltzeko.

Begiratu egin dituzten hiru pisaldiei:



Kalkulatu zenbat gramo pisatzen duen olioa daukan ogi txigortuak.

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta emaitza.

Ikus II. atala

22. Begiratu zenbat oliba dagoen ondoko irudiko platertxoan:



Naroak 6 oliba jan behar ditu. Platertxoaren zer zati jango du Naroak?

A. $\frac{4}{6}$

B. $\frac{1}{6}$

C. $\frac{1}{4}$

D. $\frac{1}{3}$

- 23.** Lursail batean bi motatako olibondoak daude: arbekina eta arroizkoa. 500 kilo oliba jaso ditugu guztira, eta horietatik 300 kilo arroizkoak dira.

Badakigu litro bat olio lortzeko 5 kg oliba behar direla.

Lau eragiketa hauetatik, zein egin behar da lursailean bildu dugun arbakina-olio litro kopurua kalkulatzeko?

- A. 300×5
- B. $(500 - 300) : 5$
- C. $(500 - 300) \times 5$
- D. $500 : 5$

- 24.** Nekazari batek 67045,68 euro gastatu ditu olibondoen landareetan eta tratamenduetan.

Nola idazten da euro-kopuru hori letrekin?

- A. Hirurogeita hamazazpi mila eta berrogeita bost koma hirurogeita zortzi.
- B. Hirurogeita zazpi mila eta berrogeita bost koma hirurogeita zortzi.
- C. Hirurogeita zazpi mila eta berrogeita bost koma hirurogeita hemezortzi.
- D. Hirurogeita zazpi mila eta berrogeita hamalau koma hirurogeita zortzi.

- 25.** Lucasek oliba lata batzuk erosi ditu, eta guztira 30 euro kostatu zaizkio.

Zenbat modutan ordaindu ahal izango ditu 30 euroak 10 €-ko billeteak, 5 €-ko billeteak edo bi mota horietako billeteak erabiliz?

- A. Modu bakarrean.
- B. Bi modutara.
- C. Hiru modutara.
- D. Lau modutara.